



2025eko UDAN EUSKARAZ: IZENA EMATEKO APARTEKO ALDIA

2025eko urtarrilaren 23ko 49/2025 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, "Udan Euskaraz 2025" kanpaina onartu zen.

Ebazpen horretan baldintza hauek ezartzen dira inskripzioei dagokienez:

- "a- Ez da inskripziorik onartuko epe horren ondoren, salbu eta adingabeak kanpaina honetan parte hartzeko beharra justifikatzen duten organismo edo erakunde publikoek egin ditzaketen eskaerak.*
- b- Taldeek gehieneko parte-hartzaile kopurua ez badute soilik ireki ahal izango da izena emateko aldi berri bat, taldeak osatzeko, baina inoiz ez adin-tarte bakoitzerako ezarritako gehieneko ratioa gaindituta. Plaza hutsak baino eskaera gehiago egonez gero, zozketa bat egingo litzateke.*

Izen-ematea otsailaren 28tik martxoaren 14ra amaiturik eta datuak aztertu ondoren, Alkateak izen-emate aldi berezi bat irekitzea erabaki du. Plaza hutsak baino izen-emate gehiago izanez gero, zozketa publikoa egingo da plaza esleitzeko inskripzioen artean:

Izena emateko aldi berri honetarako gainerako baldintzak honako hauek dira:

1- NORI ZUZUENDUA:

- Haur-hezkuntzako bigarren zikloko bigarren maiatik (2020. urtean jaioak) eta lehen hezkuntzako seigarren mailara arte (biak barne).
- D edo B hizkuntza-ereduan ikasten ari diren haurrak.
- Beste hizkuntza-ereduetan ikasten dutenek parte hartu ahal izango dute, baldin eta gutxienez eredu bereko zazpi hurreko taldea osatzen badute eta antzeko adina badute.

2- DATAK ETA ORDUTEGIA:

Ekainaren 23tik uztailaren 18ra arte, 10:00etaik 13:00etara.

3- IZENA EMATEA:

- Izen-ematea martxoaren 31tik apirilaren 11ra arte egingo da udaletxean, aurrez aurre edo telefonoz, 9:00etatik 14:00etara edo olazti@olazti.com posta elektronikoaren bidez.
- Izen-ematea formalizatzeko, beharrezkoa izango da ordainketa egitea izena emateko epean, eta beharrezkoa izango da udaletxean ordaindu izanaren egiaztatzea izena emateko inskripzio-aldian.
- Ez da onartuko epe kanpoko inskripziorik.

4- TARIFAK ETA ORDAINTZEKO MODUA:

- 35,00 € pertsona bakoitzeko.
- Bi anai-arreba edo gehiago bertaratzen badira: 58,00 €, bertaratutako anai-arreba guztiengatik.
- Ordenantza honetako tarifak ordaintzetik salbuetsita egongo dira, aldez aurretik Udalean eskatuta, beren prekarietate ekonomikoa egiaztatzen duten pertsonak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek horretarako emandako txostenaren bidez.

- Ordaintzeko modua: Olaztiko Udalaren edozein kontutan.
 La Caixa: ES37.2100.5365.20.2200026398
 Laboral Kutxa: ES77.3035.0018.49.0180900053
 BBVA: ES91.0182.5912.70.0200311132
 Banco Santander: ES24.0049.6832.17.2110000377
 Caja Rural de Navarra/Nafarroako Rural Kutxa: ES56.3008.0093.69.2261238527

5- RATIOAK:

- Ekainaren 23tik uztailaren 18ra, biak barne. 10:00etatik 13:00etara.
- Hauek dira ezarritako ratioak:
 - Haur Hezkuntzako adingabeak (4-6 urte): 8-10 pertsona begirale bakoitzeko.
 - Lehen hezkuntzako adingabeak (7-12 urte): 12-14 pertsona begirale bakoitzeko.
 - Hezkuntza-premia bereziak dituzten adingabeak: kasu bakoitzaren azterketa zehatza arabera izango da.

6- KANPAINAREN ARAUDIA:

- a) Gutxieneko asistentzia: Ezinbesteko baldintza izango da gutxienez segidako 2 astez edo ondoz ondoko 10 egunez bertaratzea, ezinbesteko arrazoiak (gaixotasunak, ospitaleratzeak, zaintzak) izan ezik, horiek ahalik eta lasterren jakinarazi beharko baitzaizkio kanpainaren koordinatzaileari. Egoera horren berri inskripzioaren unean emango da, baliozkotu ahal izateko. Kontrol-mekanismo bat ezarriko da, eta betetzen ez bada, datorren urteko kanpainan ez onartzea ekarriko du.
- b) Neska-mutilak begiraleen ardurapean daude 10:00etatik 13:00etara. 10:00etatik aurrera, helduak ez dira Sutegi parkean egongo.
- c) Bilketa-ordua 13:00etan izango da. Garaiz egingo da, ez lehenago, ez geroago.
- d) Norbaitek 10:00ak baino beranduago joan behar badu edo 13:00ak baino lehen joan egin behar badu, begiraleei jakinaraziko zaie.
- e) Kanpainatik egun baterako kanporatuko dira hiru egun berandu joaten direnak, justifikatutako arrazoirik gabe eta alde zuzenetik abisatu gabe.
- f) Haurren arduradunek begiraleei jakinarazi beharko diete zeintzuk joaten diren etxera bakarrik.
- g) Honako hauek hartuko dira hutsegite larritzat:
 - Pertsona, objektu eta leku guztiekiko errespetu eta ardura falta.
 - Iruzkina, sexistak, homofoboak, arrazistak, gordofobikoak
 - Begiraleen jarraibideak ez betetzea.
 - Ahozko erasoak, eraso fisikoak eta psikikoak
 3 hutsegite larri eginez gero, kanpainatik 2 egun kanporatuko dira.
- h) Oso hutsegite larritzat hartuko da mutilek edo neskek beren kabuz alde egitea, eta berehala kanporatua izango da 2 egunez.
- i) Gerta daitezkeen portaerak baloratuko dituzte begiraleek, eta neurri egokiak hartuko dituzte.
- j) Udan Euskaraz kanpainan izena emateak araudi hau onartzea dakar.

7-EZEZTATZEKO AUKERA:

Udalak beretzat gordetzen du ezinbesteko arrazoiengatik ezeztatze aukera; kasu horretan, ordaindutako zenbatekoa itzuliko da.